

Oñatiar izaera eta auzoak

Oñati Gipuzkoako hego-mendebaldean dagoen herria da. Oñati izenak “muinoz inguratutako lekua” esan nahi du eta ingurura begiratu besterik ez dago horretaz jabetzeko. Mendiz inguratuta dagoenez, ondoko herrietara joateko zailtasunak zituzten eta lan nekeza zen. Horregatik beti esan izan da Oñati nahiko isolatua egon dela eta horrek Oñatiarren izaera berezia esplikatzen duela.

Oñati Gipuzkoaren parte da, baina Araba eta Nafarroarekin egiten du muga. Gaur egun 11.000 biztanletik gora ditu eta herritar gehienak erdigunean bizi dira. Orain dela urte asko, alderantziz zen: baserrietan kalean baino jende gehiago bizi zen. Auzo asko ditu Oñatik eta bata bestearengandik aparte. Auzo bakoitzak bere izaera eduki izan du eta horrek ika-mikak, jakinminak, zurrumurruak... sortu izan ditu Oñatin. Eta Oñatiko herria oso zurrumurru zalea ei da. Esaera bat badago: Moja bat Zubillagan jausten hasten bada, lurrera erori baino lehen Olabartakoak ere enteratzen direla.

Honen inguruan asko hitz egin da eta kantatu batzuk ere badaude honen inguruan.

-“Oñatiko Bertsoak” kantuan azaltzen da XIX. mendeko Oñatiko auzo nagusien ezaugarri bereiziren bat (lanbideak...).

-“Herri Txiki, Herri itxi” kantuan Oñatiarren izaeraren inguruan hitz egiten da.



Bi kanta hauek Joxe Mari Anduagak musikatu ditu. 1955ean jaio zen musikari hau Oñatin. Gitarra jotzen hasi zen eta orduz geroztik, bi disko kaleratu ditu: Bizitza bera eta Garunak dantzan. Oñati Abesbatzan parte hartu izan du urte askoan eta Olaitturri Kultur Elkarteak sortutako herri-antzerkietan ere parte hartu izan du.

